

IRAKASKUNTZA-GIDA

2022/23

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25775 - Futbolaren eta Eskubaloien Oinarriak

ECTS kredituak:

9

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai hau, talde kirolei dagokionez, Graduan zehar ikusten den azkena da. Talde kirolen elementu komunak jadanik ezagunak dira. Beraz, ikasgai honetan atal bakoitzean, Futbola eta Eskubaloia bereizten dituzten elementuak garatuko dira.

Irakasgaia Futbolaren eta Eskubaloien Oinarriak denez, edukiak orokorrak eta funtsezkoak izango dira, eta batez ere, kirol hauen hastapenera bideratuak.

Irakasgaiaren asmoa arautegi, oinarri tekniko-taktiko eta didaktikoen ikuspegi orokor bat ematea izango da, hezkuntza arloan erabili ahal izateko eta bestalde, Futbola eta eskubaloien ohiko praktikak gazteen formazioan duen ekarpena erakustea.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) JFKZren esparruan erabiltzen jakitea (G018): landu eta ebaluatu.

Ikaskuntza emaitzak

- Talde kirolen entrenamendu estrategien azterketa egiteko bilketa eta tratamendu teknologia erabiltzen du.

2. Lan arloko bikaintasun eta kalitate ohiturak garatzea (G021): landu, ebaluatu eta kalifikatu

Ikaskuntza emaitzak.

- Talde kirolen entrenamendu estrategien azterketa egiteko bilketa eta tratamendu teknologia erabiltzen du.

- Ikasleak, bibliografia zientifikoan oinarrituz, irakaskuntza aldi ezberdinetan aplikatzeko unitate didaktikoak diseinatzeko dituzte.

BERARIAZKO KONPETENTZIAK

1. Futbolaren eta Eskubaloien oinarriko egiturak ezagutu, ulertu eta lehiaketa jarduera zehazten duen eskakizunak ezagutu, ikaste-jarduerak eta hobekuntza-jarduerak diseinatzeko.

Ikaskuntza emaitzak

- Futbola eta eskubaloien oinarriko egiturak eta egoerak dagokion kirol arloan aplikatzen ditu, bere jakinduria idatzizko frogan eta behaketa txostenen bidez adieraziz.

- Futbola eta eskubaloien jarduera printzipioak eta egite modeloak era praktikoa batean inplementatzen ditu, froga objektibo baten bidez baloratuz.

2. Ikasleak bizitako egoeretatik abiatuta, ekintza-printzipioak eta gauzatze-ereduak eskuratzea.

Ikaskuntza emaitzak:

- Akzio-printzipioak eta gauzatze-ereduak modu praktikoa gauzatzen ditu, proba objektibo baten bidez baloratuta

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua identifikatu eta parte hartzen du, berezko metodologia printzipioak eta egitura aztertuz; bere ezagupenak proiektu baten bidez erakutziz -informeak eginez-

3. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan diseinatu eta esku hartzen du, gauzatze-ereduak eta printzipio metodologikoak aztertuz, etapa edo arlo desberdinetan aplikatzeko.

Ikaskuntza emaitzak:

- Futbola eta eskubaloien oinarriko egiturak eta egoerak dagokion kirol arloan aplikatzen ditu, bere jakinduria idatzizko frogan eta behaketa txostenen bidez adieraziz.

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua identifikatu eta parte hartzen du, berezko metodologia printzipioak eta egitura aztertuz; bere ezagupenak proiektu baten bidez erakutziz -informeak eginez-

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

FUTBOLEKO MODULOA

GAI TEMATIKOA 1. Futbolaren definizioa

1.1. Ikuspuntu juridiko batetik.

1.2. Bere barne logikari dagokionez.

GAI TEMATIKOA 2. Futbolaren jatorria gaur egun arte

2.1. Futbolaren araudia.

2.2. Joko sistemen eboluzioa.

GAI TEMATIKOA 3: Esku-hartze estrategiak

- 3.1. Atazen diseinua futbolean.
- 3.2. Entrenamendu estrategien azterketa futbolean.
- 3.3. Barne logikaren moldaketaren ondorioak futboleko atazetan.

GAI TEMATIKOA 4. Jokalaria esku-hartze prozesuan

- 4.1. Hastapena vs Errendimendua.
- 4.2 Etapa formatiboak.

ESKUBALOIKO MODULOAK

Gaia 1.- Eskubaloia: gaurengungo testuingurua eta bere barne logika

Gaia 2.- Eskubaloiaaren tratamendu didaktikoa: mailakako programak
1x1 etik: Eraso eta defentsa; 7x7 ra: Talde jokoaren hasiera

Gaia 3.- Aplikazio-eremuak

METODOLOGIA

FUTBOLEKO ETA ESKUBALOIKO MODULOAK

Ikaskuntza-Irakaskuntza prozesuan metodologia aktiboak eta partehartzaileak, eta informazioaren eta teknologiaren erabilera sustatuko dira irakaskuntza aktibo eta dinamikoa bultzatuz. Jardueren artean, banakako eta taldeko lanak, eztabaida taldeak, aurkezpen praktikoak eta debateak egongo dira.

Kurrikulumarekin bat egiteko metodologiak eta ebaluazioak lotura handia izango dute. Modu horretan ikasturtean zehar, ikasleek autoebaluazioak, elkarren arteko ebaluazioak eta taldeetan oinarritutako ebaluazioak burutuko dituzte. Kideekin eginiko ebaluazioak ez dira bakarrik froga espezifiko batzutan egingo, kideen aurkezpenak aditzen eta ekarpenak egiten dituztenean bakoitzean ere bai. Ikasleak kideen ebaluazio eginkizunetan inplikatzeko egokia da ikasleari edukien ulermen eta erabilpen hobea batera iristeko lagungarri den zerbait bezala bideratzen denean.

Ebaluazio sistema jarraian, aurrez aurreko saioretan eginkizun eta froga ezberdinak burutuko dira. Hauek ikasleen formakuntzarako eta kasu batzutan ikasgaiko bukaerako notarako baliogarriak izango dira. Ez etortzeak irakasleak eta ikasleak adostutako eginkizun eta jarduerekin konpentsatuko dira.

Horrez gain, ikasgai honen ezaugarriak direla eta ezinbestekoa da gelako praktikatan parte hartzea behar den jarrera, interesa eta begirunea beste partehartzaileekiko izanez.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30		40						20
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45		60						30

Legenda:

M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 10
- Test motatako proba % 10
- Ahozko defentsa % 10
- Praktika (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Banakako lanak % 10
- Talde lanak (arazoaren ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10
- Portfolioa % 10
- Erabilitako sistemak talde bakoitzeko ikasle kopurua eta ikasurtearen dinamikaren arabera %20 aldatu daitezke. % 20

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio sistemak ebaluazio JARRAIA eta AZKEN ebaluazioa izango dira. Ikasleek 9 asteko epea izango dute, ikastegiako eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita, irakasgaiaren ardura duen

irakasleari posta elektronikoaren bidez EBALUAZIO JARRAIARI uko egiteko. Ikasleak Futbolean zein Eskubaloian adierazi beharko du. Egin ezean, ikaslea EBALUAZIO JARRAIA sisteman izango da.

EBALUAZIO SISTEMA JARRAIA

Edukien banaketa zehatza, lanen entregatze data eta frogen datak irakasleak ikasleekin kontsultatuz zehaztuko ditu aurreneko asteetan.

Futbola

Froga (F) eta eginkizunak (E) (notaren %koa)

Idatzizko azterketa: Futbolaren definizioa (%5)

Futbolaren arautegiko arau baten azalpena (%10)

Idatzizko azterketa: Futbolaren araudia (%10)

Idatzizko azterketa: Joku Sistemen garapena (%10)

Ataza diseinua 1 (%5)

Ataza diseinua 2 (%5)

Entrenamend atazak ikuskatu eta barne logikaren arabera aztertu (%10)

Futbol talde baten entrenamenduen azterketa (%25)

Artikulu zientifikoaren azterketa 1: barne logikaren moldaketaren ondorioak (%5)

Artikulu zientifikoaren azterketa 2: barne logikaren moldaketaren ondorioak (%5)

Entrenamendu saio baten diseinua eta garapena formakuntza etaparen arabera (%10)

Eskubaloia

1 IDATZIZKO froga (1): Edukien ezagutza- eta ulermen-azterketa, test moduko galderak, galdera labur, eta azalpenezko eta argudiatzezko galderetan oinarritu daiteke. Banakakoa. Notaren % 40a. Gainditzeko gutxieneko nota: 5/10

2 PORTAFOLIOA: Dokumentu honetan egindako praktiken dossierra, praktiken analisia, hausnarketak, praktiken moldaketak, fitxen proposamenak, eta abar jasoko dira. Notaren zati bat ikaskideen arteko ebaluaziotik etor daiteke. Gainditzeko GAI izan behar da.

3 IDATZIZKO froga (2): Aurreko atalean ikasitako aplikazio praktikoari buruzkoa. Banakakoa. Egin ahal izateko, idatzizko froga (1) gaindituta izan behar da (5/10 gutxienez). Notaren % 60a, eta gainditzeko gutxieneko nota: 5/10

4 PRAKTIKA MOTORRARI buruzko froga: GAI/EZ GAI. GA eta GCA saioetan ebaluatuko da.

Proba edo jarduera guztiak derrigorrezkoak dira, hau da, egin beharrekoak eta gutxieneko 5/10 nota lortu behar da.

Gutxieneko nota lortu ezean, atal horiek ezohiko ebaluazio garaian egingo dira.

Deialdiari uko egiten dioten ikasleek <<aurkezteke>> kalifikazioa jasoko dute. Ikasleak deialdiari uko egin ahal izango dio dagokion irakasgaiaren irakaskuntza-aldia amaitu baino hilabete lehenago, gutxienez. Uko egite hori idatziz aurkeztu beharko zaie irakasgaiaren ardura duten irakasleei.

AZKEN AZTERKETAREN BIDEZKO EBALUAZIOA

Deialdiari uko egiten dioten ikasleek <<aurkezteke>> kalifikazioa jasoko dute. Azterketara ez aurkezte hutsak «aurkezteke» kalifikazioa suposatuko du.

Azken ebaluazioak proba baten bitartez ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko aukera ematen du. Proba honek irakasgaiari edo gaiari dagokion notaren % 100 biltzen du. Proba azterketa edota jarduera batez edo gehiagoz osatua egongo da.

Probaren ezaugarriak:

Futbola

1 IDATZIZKO azterketa: galdera teorikoak eta ebaluazio jarraian burututako praktikak.

Eskubaloia

1 IDATZIZKO azterketa: edukien ezagutza eta ulermenean eta irakasgaiaren gaitasunetan oinarrituko da. Proba test moduko galderez, galdera laburrez eta azalpen- eta argudio-galderez gain, baliteke probaren zati bat ordenagailu gelan egin behar izatea, ariketa praktiko bezala edota AHOZ defendatu behar izatea (notaren % 70a)

2 PRAKTIKA MOTORRA: ikasgaiaren eduki-konpententzia guztiei buruzkoa (GAI/EZ GAI). Azken proba egin ahal izateko, ikasleek aurretik, derrigorrez, proba praktikoa burutu behar dute. Irakasleak proba praktikokoaren eguna eta ordua zehaztuko du.

3 Egelan deskribaturiko LANAK edota irakasleak proposaturikoak. Horretarako, irakasleekin gutxienez 3 tutoretza izango dira ikasturtean zehar: 3., 8. eta 13. asteetan izan daitezke, azken ebaluaketaren bidezko azterketa noiz egiten den arabera. Tutoretza asmoa: azken ebaluaketa prestatzea. Lanak, ikasturtean zehar egingo dira eta azterketa deialdirako ezarritako data ofizialean baino 15 egun lehenago edota adosturiko datetarako entregatu beharko dira (notaren %30a).

IKASGAIAREN NOTA FINALA

Futbola eta Eskubaloien atalen artean batz bestekoa egingo da kirol modalitate bakoitzean bai idatzizko frogan bai praktikakoan gutxienezko 5 bat lortu bada eta kirol bakoitzean orokorrean gutxienez 5/10 izanez.

Ikasleak printzipio etikoak urratzen baditu GUTXIEGI kalifikazioa (0) izan dezake.

Ebaluazioa ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2022-2023 Irakaskuntzarako

Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan. Gelako praktikek Landa praktikak ordezkatzeko lituzkete: bakarka eta taldeka egindako lanak; artikuluen irakurketa kritikoa, fixxen burutzea, bideo analisiak etab. Irakasleak ebaluazioa ahozko frogaren bitartez egin ahal izango du.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO SISTEMA JARRAITUA

Deialdi honetan, 1.go deialdian gainditurik gabeko atalak ebaluatuko dira.

Azken nota egiteko, Futbola eta Eskubaloia atalen artean batz bestekoa egingo da kirol modalitate bakoitzean gutxienezko 5 bat lortu bada.

Azterketara ez aurkezte hutsak «aurkezteke» kalifikazioa suposatuko du.

AZKEN AZTERKETAREN BIDEZKO EBALUAZIOA

Ohiko ebaluazioan bezala, etengabeko ebaluazio jarraitu ezin duten ikasleek badute irakasgai osoa ebaluatuko duen azken proba batera aurkeztea. Proba honek irakasgaiari edo gaiari dagokion notaren % 100 biltzen du. Proba azterketa edota jarduera batez edo gehiagoz osatua egongo da.

Probaren ezaugarriak:

Futbola

1 IDATZIZKO azterketa: galdera teorikoak eta ebaluazio jarraian burututako praktikak.

Eskubaloia

1- IDATZIZKO azterketa: edukien ezagutza eta ulermenean eta irakasgaiaren gaitasunetan oinarrituko da. Proba test moduko galderez, galdera laburrez eta azalpen- eta argudio-galderez gain, baliteke probaren zati bat ordenagailu gelan egin behar izatea, ariketa praktiko bezala edota AHOZ defendatu behar izatea (notaren % 60).

2- KIROL PRAKTIKA ikasgaiaren eduki-konpententzi guztiei buruzkoa (notaren % 20a). Azken proba egin ahal izateko, ikasleek aurretik, derrigorrez, proba praktikoa burutu behar dute. Irakasleak proba praktikoen eguna eta ordua zehaztuko du.

3- Ikasleen gidan deskribaturiko lanak. Ikasturtean zehar egingo dira eta azterketa deialdirako ezarritako data ofizialean baino 15 egun lehenago entregatu beharko dira (notaren %20a).

IKASGAIAREN NOTA FINALA, BI MODULOAK BATERATUA

Azken nota egiteko, Futbola eta Eskubaloia atalen artean batz bestekoa egingo da kirol modalitate bakoitzean gutxienezko 5 bat lortu bada.

UKO EGITEKO PROZEDURA ETA EPEAK

Azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea. Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

Ebaluazioa ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2022-2023 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan. Gelako praktikek Landa praktikak ordezkatzeko lituzkete: bakarka eta taldeka egindako lanak; artikuluen irakurketa kritikoa, fixxen burutzea, bideo analisiak etab. Irakasleak ebaluazioa ahozko frogaren bitartez egin ahal izango du.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasgaiaren E-gela eta erreferentziaturiko bibliografia eta aplikazio ofimatikoak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

FUTBOLA

GAI TEMATIKOA 1. Futbolaren definizioa

Araújo D, Davids K. Team synergies in sport: Theory and measures. *Frontiers in Psychology* 2016; 7: 1449.

Balague N, Torrents C, Hristovski R, et al. Overview of Complex Systems in Sport. *Journal of Systems Science and Complexity* 2013; 26: 4–13.

Duarte R, Araújo D, Correia V, et al. Sports teams as superorganisms: Implications of sociobiological models of behaviour for research and practice in team sports performance analysis. *Sports Medicine* 2012; 42: 633–642.

Martínez de Santos, R. Juegos, reglas y azar (1a parte). Sobre la naturaleza de los juegos deportivos. *Retos* 2014; 26: 143–148.

Parlebas, P. Elementary Mathematical Modelization of Games and Sports. In *The Explanatory Power of Models*; Franck, R., Ed.; Springer: Dordrecht, The Netherlands, 2002; Volume 1, pp. 197–227.

Parlebas, P. Motor Praxeology: A New Scientific Paradigm. In: Vaczi M (ed) *Playing Fields: Power, Practice, and Passion in Sport*. Reno, NV: Center for Basque Studies, 2013; pp. 127–144.

Parlebas, P. Juegos, deporte y sociedad. *Léxico de praxiología motriz*. Barcelona: Paidotribo 2001.

Pol R, Balagué N, Ric A, et al. Training or Synergizing? Complex Systems Principles Change the Understanding of Sport Processes. *Sports Medicine - Open* 2020; 6: 28.

GAI TEMATIKOA 2. Futbolaren jatorria gaur egun arte

Braum, H.J. Soccer Tactics as Science? On 'Scotch Professors', a Ukrainian Soccer Buddha, and a Catalanian Who Tries to Learn German. *ICON Journal of the International Committee for the History of Technology* 2013; 19: 216-243.

Summerley, R. The Development of Sports: A Comparative Analysis of the Early Institutionalization of Traditional Sports and E-Sports. *Games and Culture* 2020, Vol. 15: 51-72.

Wallace, J.K., Norton, K.I. Evolution of World Cup soccer final games 1966-2010: game structure, speed and play patterns 2014; 17: 223-228.

GAI TEMATIKOA 3: Esku-hartze estrategiak

Martínez de Santos R., Castellano J & Los Arcos A. Coaching Strategies in a Spanish 1st Division Club's Football School. In book: *Science & Football V. The proceedings of the Fifth World Congress on Science and Football*. 2004; pp. 578-583.

Martínez-Santos, R., Los Arcos, A. Diseño de tareas en la escuela de fútbol del C.A. Osasuna. III Congreso de la Asociación Española de Ciencias de Deporte. Valencia, 2004.

Martínez de Santos, R. La praxeología motriz aplicada al fútbol. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Vitoria-Gasteiz, 2007.

O'Connor D, Larkin P & Williams AM. Observations of youth football training: How do coaches structure training sessions for player development?, *Journal of Sports Sciences* 2018; 36: 39-47.

Partington M & Cushion CJ. An investigation of the practice activities and coaching behaviors of professional top-level youth soccer coaches. *Scandinavian Journal of Medicine & Science in Sports* 2013. 23, 374-382.

GAI TEMATIKOA 4. Jokalaria esku-hartze prozesuan

Martínez de Santos, R. La praxeología motriz aplicada al fútbol. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Vitoria-Gasteiz, 2007.

O'Connor D, Larkin P & Williams AM. Observations of youth football training: How do coaches structure training sessions for player development?, *Journal of Sports Sciences* 2018; 36: 39-47.

Santos SD, Memmert D, Sampaio J, Leite N. The Spawns of Creative Behavior in Team Sports: A Creativity Developmental Framework. *Frontiers in Psychology* 2016; 7: 1282.

ESKUBALOIA

Antón, J. (2000). Balonmano. Perfeccionamiento e investigación. Barcelona: INDE

Antón, J. (2002). Balonmano. Táctica grupal defensiva. Madrid: Gymnos.

Bayer, C. (1986). Técnica de balonmano. La formación del jugador. Barcelona: Hispano Europea.

Bayer, C. (1997). La enseñanza de los juegos deportivos colectivos. Barcelona: Hispano Europea.

Blázquez, D. (1998). La iniciación deportiva y el deporte escolar. Barcelona: INDE.

Devís, J. (1992). Bases para una propuesta de cambio en la enseñanza de los juegos deportivos. En Devís, J. y Peiró, C.

Nuevas perspectivas curriculares en la educación física: la salud y los juegos modificados. Barcelona: INDE.

García Herrero, J. A. (2003). Entrenamiento en balonmano. Bases para la construcción de un proyecto de formación defensiva. Barcelona: A&M Gráfico

Lasierra, G.; Lavega, P. (1993). 1015 juegos y formas jugadas de iniciación a los deportes de equipo. Barcelona: Paidotribo.

LLorente Pastor, B. y Diez Maestro, E. (1996). Eskubaloia Lehen Hezkuntzan. Vitoria-Gasteiz : Shee-Ivef.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

FUTBOLEKO MODULOIA

www.comiteentrenadoresrfef.com.

www.efdeportes.com

www.fifa.com

www.expertfootball.com/es/multitudinario.php

<http://www.futbolformativo.es/>

ESKUBALOIKO MODULOIA

www.aebm.com. Asociación entrenadores de balonmano.

www.rfeb.com. Real federación española de balonmano.

www.ajbm.com. Asociación jugadores de balonmano.

www.geocites.com/arbitros_balonmano. Asociación de Árbitros de balonmano.

www.asobal.com. Asociación de clubes de Balonmano (ASOBAL).

www.eurohandball.com. Federación Europea de Balonmano.

www.ihf.info. Federación Internacional de Balonmano.
www.comiteentrenadoresrfef.com.
www.efdeportes.com
www.fifa.com
www.expertfootball.com/es/multitudinario.php
<http://www.futbolformativo.es/>

OHARRAK

Modulo bakoitzaren hasieran ikaslegoa kompetentziak, edukiak eta ebaluazioaren inguruko informazio zehatzago eta data duna jasoko dute.